

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Ordenantza, 7. artikuluko (Hobariak) 2.a. puntuan igerilekuen klimatizazio sistemak ordeztzeko hobaria kentzea:

Ordenantzak horrela dio:

2 a) Eraikin, instalazio eta obretarako obra lizentziak

% 95eko hobaria izango dute beroa edo argindarra ateratzeko eguzkiaren edo beste energia berriztagarri batzuen energiaz baliatzen diren sistemak jartzen badituzte, betiere instalazioa honetarako bada: etxeko ur beroa lortzeko, igerilekuen klimatizazio sistemak ordeztzeko edo 100 KW nominaletik beherako eguzki instalazio fotovoltaikoa ordeztzeko.

Instalatzeko legezko betebeharrak ez dagoenean, beharrezko aurrekontu osoagatik emango da hobaria. Instalatzeko derrigorrezkoa denean, araudia zorrotz betez instalazioa egiteko beharrezko aurrekontuaren eta ondoren azaltzen diren baldintzak betetzeko beharrezko aurrekontuaren arteko aldeari emango zaio hobaria:

- igerilekuak klimatizatzeko gutxieneko eguzki- ekarpena: betiere, aplikatu beharreko araudian ezarritako urteko gutxieneko eguzki-ekarpenaren ehunekoa gutxienez %25 handitzen bada eta igerilekuko klimatizazio-premien %70, gutxienez, betetzen badute.

- ur bero sanitarioa: betiere, aplikatzeko den araudian ezarritako urteko gutxieneko eguzki- ekarpenaren ehunekoa gutxienez %25 handitzen bada eta etxebizitzaren edo higiezinaren ur bero sanitarioaren premien %70, gutxienez, asetzen badute..

- eguzki-energia fotovoltaikoa: baldin eta instalatu beharreko gutxieneko potentzia elektrikorako indarreko legerian ezarritako baldintzak gutxienez %25 handitzen badira, gutxienez 6,25 KW eta gehienez 100 KW nominalak instalatuta.

Edonola ere, hobari hori aplikatzeko, zerbitzuan jartzeko administrazio baimena eta/edo mantentze kontratua ekarri behar dira, egiaztagiri gisa.

EH Bildu udal taldearen proposamena:

2 a) Eraikin, instalazio eta obretarako obra lizentziak

% 95eko hobaria izango dute beroa edo argindarra ateratzeko eguzkiaren edo beste energia berriztagarri batzuen energiaz baliatzen diren sistemak jartzen badituzte, betiere instalazioa honetarako bada: etxeko ur beroa lortzeko edo 100 KW nominaletik beherako eguzki instalazio fotovoltaikoa ordeztzeko.


Instalatzeko legezko betebeharrak ez dagoenean, beharrezko aurrekontu osoagatik emango da hobaria. Instalatzeko derrigorrezkoa denean, araudia zorrotz betez instalazioa egiteko beharrezko aurrekontuaren eta ondoren azaltzen diren baldintzak betetzeko beharrezko aurrekontuaren arteko aldeari emango zaio hobaria:

- ur bero sanitarioa: betiere, aplikatzeko den araudian ezarritako urteko gutxieneko eguzki- ekarpenaren ehunekoa gutxienez %25 handitzen bada eta etxebizitzaren edo higiezinaren ur bero sanitarioaren premien %70, gutxienez, asetzen badute..

- eguzki-energia fotovoltaikoa: baldin eta instalatu beharreko gutxieneko potentzia elektrikorako indarreko legerian ezarritako baldintzak gutxienez %25 handitzen badira, gutxienez 6,25 KW eta gehienez 100 KW nominalak instalatuta.

Edonola ere, hobari hori aplikatzeko, zerbitzuan jartzeko administrazio baimena eta/edo mantentze kontratua ekarri behar dira, egiaztagiri gisa.

Donostian, 2025ko abuztuaren 7an.



Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

90
-111-
n 1
10655
697
01200
EL
TEE/R
400A/
P2007
CIF
/IFK/